BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3569

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 21ekoa, Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendariarena, uztailaren 27ko 218/2010 Dekretuaren babesean Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta nekazaritzako elikagaien sektorean ikerketa, garapena eta eraberriketa bultzatzeko ematen diren dirulaguntzetarako deialdia finantzatzea helburu duen 2011ko ekitaldiko baliabide ekonomikoen kopuru berria argitara ematekoa.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2011ko otsailaren 17ko Aginduaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta nekazaritzako elikagaien sektorean ikerketa, garapena eta eraberriketa bultzatzeko ematen diren dirulaguntzen 2011rako deialdia egin zen. Agindu horren hirugarren ebazpenaren 1. eta 2. paragrafoetan xedatu bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren konturako aurrekontu kredituaren xedea uztailaren 27ko 218/2010 Dekretuaren 6. artikuluaren a), b), c), d) eta e) idatz-zatietan xedatutako ekintzak finantzatzea da. Aurrekontu kreditu hori milioi bat laurehun eta laurogeita hamabost mila zortziehun eta berrogeita hamalau euro (1.495.854) da; horietatik, milioi bat ehun eta laurogeita hamabost mila zortziehun eta berrogeita hamalau euro (1.195.854) 2011ko ekitaldirako ordainketa-kreditukoak dira eta hirurehun mila euro (300.000) 2012ko ekitaldirako konpromiso-krediturako zenbatekoa da.

Halaber, ebazpenaren 3. paragrafoan azaldu bezala, ebazpen horretan jarritako zenbatekoak aldatu ahal izango dira –eskatutako laguntzen zenbateko osoa kontuan harturik– Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren beste laguntza-egitarau batzuk gauzatzean agortzen ez diren aurrekontu-baliakizunen arabera, eta laguntzei buruzko ebazpena eman baino lehen. Berrikuntza eta Elikagai Industriako zuzendariaren ebazpen batek emango du horren berri.

Esangura horretan, Berrikuntza eta Elikagaien Industriako Zuzendaritzak kasuan kasuko izapideak egin eta gero erabaki du 2011ko ekitaldirako, hirugarren ebazpenaren 1. paragrafoan xedatutako kreditu propioak gehitzea. Gehitzearen zenbatekoa hirurehun mila euro (300.000) da, Euskadi Informazioaren Gizartean planaren barruan, «PESI 2010: Euskadiko Agenda Digitala» izenpean.

Aurretik esandakoari jarraiki, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Idazkera Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 17/2011 Legegintza Dekretuaren 49.2 artikuluan eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aipatutako 2009ko abuztuaren 6ko Aginduan aurreikusitakoarekin bat etorriz, bidezkoa da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea aipatutako zenbateko-aldaketa hori.

Horiek horrela, hauxe

EBATZI DUT:

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2011ko otsailaren 17ko Aginduaren hirugarren ebazpenaren 1. paragrafoan jasotako diru baliabideen zenbateko berria argitaratzea. Agindu honen bidez, nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreetan ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzeko laguntzen deialdia egiten da, 2011ko ekitaldirako, uztailaren

27ko 218/2010 Dekretuaren babesean. (EHAA, 184 zk., 2010eko irailaren 23koa). Zenbatekoa milioi bat laurehun eta laurogeita hamabost mila zortziehun eta berrogeita hamalau euro (1.495.854) da; horietatik, milioi bat ehun eta laurogeita hamabost mila zortziehun eta berrogeita hamalau euro (1.195.854) 2011ko ekitaldirako ordainketa-kreditukoak dira eta 2012ko ekitaldirako konpromiso-krediturako zenbatekoa (300.000 euro) ez da aldatzen.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko ekainaren 21ean.

Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendaria,
AMAIA BARRENA TELLERIA.